

# KONTU ZARRAK.



«Qui potest capere, capiat.»

## I.

Zerua urdiñ zegoen: illargiak distiatzen zuen, millaka izarrez inguratua. Otz zan: arbolak, ostorik gabeak ageri ziran: zelayak, elur-pean lotan: Aralar-ko mendia zuriz jantzirik.

Amezketako Arizti-n jendea prestatzen zan Onenzaro egitera. Paulo, su-ondoan eseririk, ille zuria burutik bera zeriola, larogei-ta geiago urte bizkarrean eta ontasuna eta pakea animan, ageri zan an zeuden guztien buru ta agintari. Bere semea, Jose Manuel, seme talde ederrez inguratua, gizon sasoikoa, Pauloreri arrazakoa, gorputzez ta animaz, zan eche ura sostengatzen zuena. Aurrak kantatzen zuten gogotik: emakumeak, alai zeuden; arpegi guzietan azaltzen zan, gau zoragarri ark Kristau-denai ematen dioten poz kabugabea, atsegiñ santua, munduan aberastasunez beteta daudenak baño obeto baserri chokoan bizi dan nekazari langilleak gozatzen duena.

Afaldu zuten gogotik: jondo afaltzen da beti neke-izerdiz bustitako ogia jaten clan lekuan! eta kantu batzuek bota, eta

(1) Leyenda premiada con *un ramo de laurel de plata* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1891. (Véase pág. 522).

aritz-enbor lodiak egiten zuten sugar gozagarriaren inguruan berotu ta moldatu ziran denak oyerako.

Andre Mikela-Antonik esan zion alaba gaztechoari: Begira, Josepa-Juana, garbitu zazu ongi sukaldea, chillarrezko erretz orrekin, zergatik ondo garbitutako sukaldean aingeruak dantzatzen dira.

Esan ta egin: Josepa-Juanak garbitu zuen sukaldea, utzi zuen ispillu bat baño argiyago, eta beste guztiak bezela oyeratu zan, gaubak bere bidearen erdia baño geyago egiña zeramanean, eta Amezketako Eleiz-nagusian gauberdiko ezkillak jo ezkeru.

Lotan guztiak zeudela, atearen danbatekoak esnatu zuten Paulo: deitu zion bere semeari, eta esan zion: Jose-Manuel, eztakit nor izango dan Onenzaro gaubean gure echera datorrena. Idiki zayozu atea: beti zor diogu laguntasuna guregana datorren lagun-urkoari, baña sekula baño geyago gaurko gaubean, zergatik gogoan izan bear degu nola ibilli zan San Jose ostatubilla, eta arkitu etzuelako, estalpe char batera joan zan, an jayo zedin zeru ta lurren Jabea.

Jose-Manuel jaiki zanerako, oyetik aterea zan bere seme zarrena, Juan Antoniyo, orduan amar bat urteko mutill gaztechoa, mendian ardiak zaitzen eta Ugarte-ko olara mandatuakin joaten oitua.

Ola-gizonen bat izango zalakoan, atera ziran, eta jorra non arkitzen duten Lazkauko morroi bat, dena izuturik, chapelik gabe, erdi-jantzian, izerdia zeriola, ta gaubaren oztasunari baño atzean zegoen saroi ta baso illuntsuari kontu geyago artzen ziola.

—¿Zeiñ zera ta zér dakartzu?—esan zioten.

—¿Zeiñ naizen?... Kaiz Lazkauko Juan Lopez-en morroia, eta dakart.... sartu gaitezen echera, eta or esango dizutet zér dakartan..., esan zien izutasun aundiarekin, beti ere atzera begiratuaz.

Sartu ziran, eta sukaldean eseri, ta arropa batzuek jantzi ondorean, orra zér esan zuen.

## II.

Bart-arratsean, nagusiari afari eder bat eman eta gerok gotik afaldurik, oyeratu gera. Gauba zegoen eziñ ta ederragoa: Lazkauko echetik etzan ezer sentitzen: azpian zijoan Agaunzako ibaiaren murmur bizichoa zan isilltasun aundientsu artan entzuten zan soñu bakarra. Aizerik etzan batere; arbola larrugorrituak, geldi-geldirik zeuden: baziruditen anima-gabe gelditutako gorputzen ezur utsak. Lazkauko ibarrean pakea zegoen nagusi: Zeruan ere bai. Izarrak koroatzen zuten illargia, eta onen errañu zillarrezkoak ematen zion alako aigitasun gozo bat zelai guztiak estaltzen zituen elur zuriari. Zeruan ta lurrean, mendi-basoz estalian, eta ibar zakonean, bazirudien entzuten zala aingeruen boza, esanaz: *Gloria Zeruan Jaungoikoari: pakea lurrean, borondate, naitasun oneko gizonai.* ¿Nork esan, andik ordu gichira, ikusi bear genubela guk ikusi deguna?... Oyera giñan beranducho: artean ondo loak artu gabe nintzan, burniarmen otsa entzun dedanean. Ateratzen naiz oyetik leyora... eta ez dakit nola esan nik ikusi dedana: Ganboa-koak, Balda-koak, Achega-koak, Iraeta-koak, gure nagusiaren antziñako etsayak, bere kontra gorroto zitalez beteak, jende armadunez beterik echean sartzen: nagusia, leyoetik salto egin ta alkandora utsean ibayaz beste aldera iges-egiten: echeko-andrea, ezpataz josia, bere magalean amabi urteko galai gaztechoa duela<sup>(1)</sup>: morroyak, igesi, ta lapurren modura arrapatu taillak: nik ¿zéregin?... nola ezdakitala alde-egiten det, jo det mendiak gora, Zaldibiatik ez urrun igaro naiz, eta bildurrak egoak emanik irichi naiz oneraño... ¡zenbat denboran! ori eziñ esan nezake.

Denboraren konturik ez nuen: nere oñotsak oyarzunak esnatzen bazituen, uste nuen nere kontra zetozen oiñkadak zirala: bildurra sartu zait biotzeraño, eta ez dakit noraño joango nintzan, indarrak galdu, ta oso auldurik, emen gelditu bear izan ezpanu.

—Atoz, atoz oyera, gizajo ori, esanzion Jose Manuel-ek; emen zauden bitartean ez dizu iñork ezer egingo. Or dagoen Amezketako echeko jauncho ori, ez da biziro gozoa, baña oraindik ez da beste bere modukoak sartu diran naspill oyetan sartu.

(1) 1420-eangeratu zan au.

Eta au esanik, eraman zuten echean zuten oirik onenera.

Juan Antoniyo-k aditzen zituen gauz oek guztiak aoa zabal-  
durik, eta bere aitak, bazterrera eramanik, esan zion:

—Aditzen dituk gauza oyek guztiak, mutill? Bada oyek era-  
kutsi bear ditek gerra dala gizonak asmatu lezakean gauzik ero  
ta galgarriena. Gerra dek erri batentzat izan litekean zorigaitzik  
aundiena: gerra dan bitartean galtzen dik gizonak bere giza-  
tasuna; gorrotoak artzen dik maitetasunari dagokion tokia, al-  
perkeria nagusitzen dek, lurrak gelditzen dituk landu gabe, ole-  
tatik alde-egiten ditek ola-gizonak, ikazkiñaren sua len dagoen  
tokian agertzen dek gorputz illen bat, odol-arrasto bat, gizonen  
gaiztakeria azaltzen duen siñalea edozeiñ moduz dala ta ere.  
¿Agintzen didak beti egingo dekala aitak esaten dikana?

—Bai, bai, esan zion mutillchoak: ¿zér egingo det bada, nik,  
aitak agintzen didana egiten ez badet?

—Orrela izan adi, beti; esan zion aitak: ez aiz damutuko bide  
orretatik abillen artean...

### III.

Urteak joan ziran: lengo zarrak ill, gazteak zartu, aurrak  
gizondu. Paulo joan zan beste mundura bizi izan zan bezela, pa-  
kean: Jose-Manuel zartu zan: Juan Antoniyo, gizon bikaiña ze-  
goen, sasoirik oneneko.

Ola-gizonen artean etzan agertzen Ugarte-n onen parekorik.  
Aren lanerako gogoa, aren modua, aren noblezasuna edozeiñ  
choratzeko modukoak ziran.

Ojer Amezketa-koa zebillen *aide-nagusien*<sup>(1)</sup> gudetan chit  
naspillatua. Jendea billatzen zuen bere aundinaia betetzeko, bada  
zenbat eta geyago eraman bere mendean, anbat eta errazago  
izango zan etsayak azpiratzea. Joan zan Ugartera, eta Juan An-  
toniyo berekiñ eraman nai izan zuen. Lenbizikotik ezetz esaten  
zion ark: baña nola bazekien Amezketako jaunchoak Juan Anto-  
niyo aberastasun-zale samarra zala, agindu zizkan aunditasunak,

(1) Parientes mayores.

sekula pensatu etzuen bezelako ondo-izateak, eta aundi-naiak atera zuen olatik. Gero etorri ziran urte artako jazarra negargarririk: (au zan 1448-garren urtean): Berastegi-ko echearen ertsitzea: an izan ziran odol-isurtzeak, eta piškaka piškaka Juan Antoniyo gerrari zion gorrotoa galtzen joan zan: gero, bizimodu ark, echetik kanpora beti ibiltzeak, etsaia-ri arrapatzen zitzaiona lege onean irabazia bezela idukitzeak, kendu ziozkaten len zituen sentimentu onak: lenbizikotik orrelako bear ez zan gauza bat egitean, bidegabekeri bati kabu ematean, zerbaitek esaten zion barrendik: etzazu ori egin; debekatua dago; atsekabeak lagunduko dizu bizi zeran artean; baña gero... biotza joan zan gogortzen; lege onak aztutzen; aitak erakutsitako oitura onak gelditu ziran bazterrean.

Joan ziran urteak, gerrak geroago ta ziran gogorrakoak; errietan egunetik egunera goitutzen zan doakabea; oletan etzan entzuten burni-soñu pozgarririk; Aralar-ko artzaiak aspaldiko urteetan etziran ageri; *Aide-nagusien* arrokeriak etzuen kaburik... jeta Joṣé Manuel, zarra, bizkar makurtua, tristea, penas erdiraturik biotza zuela, an zegoen Arizti-ko baserri bakarrean! Semeak ill zitzaitzkan guda triste ayetan.

Etorri zan 1457-garren urte gogoangarria. Gerra anai-arteko ayek bukatu ziran. *Aide-nagusien* dorre ta gazteluak bota zituzten: naspill ayek sortzen zituztenak biralduak izan ziran urrutietara... eta Joṣé-Manuel-i bere samintasunak laster erakarri zion eriotza:

Beste mundura urbiltzen zan bezela, esaten zuen tristura bigungarriarekiñ:

—¡Madarikatua gerra!

KARMELO ECHEGARRAY-KOAK.

